

AURKIBIDEA

Abuztuaren 18an, URTEAN ZEHARREKO XX. IGANDEA	4
Abuztuaren 25ean, URTEAN ZEHARREKO XXI. IGANDEA	10
Irailaren 1ean, URTEAN ZEHARREKO XXII. IGANDEA	17
Irailaren 8an, URTEAN ZEHARREKO XXIII. IGANDEA.....	23
Irailaren 15ean, URTEAN ZEHARREKO XIV. IGANDEA	29
Irailaren 22an URTEAN ZEHARREKO XXV. IGANDEA.....	36
Irailaren 29an, URTEAN ZEHARREKO XXVI. IGANDEA.....	42
Urriaren 6an, URTEAN ZEHARREKO XXVII. IGANDEA	49
Urriaren 13an, URTEAN ZEHARREKO XXVIII. IGANDEA.....	56
Urriaren 20an, URTEAN ZEHARREKO XXIX. IGANDEA.....	62
Urriaren 27an, URTEAN ZEHARREKO XXX. IGANDEA	69

Abuztuaren 18an
URTEAN ZEHARREKO XX. IGANDEA

Agurra

Bidean lagun dugun Kristo Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Ongietorri guztiok! Eukaristiak toki berezia du kristauon bizitzan, edo izan behar luke behintzat. Eukaristia da gure bizitza osoaren eta ekintza guztien iturri eta helmuga; bertan agertzen zaigu era berezian Jainkoak gurekiko duen salbamen asmoa Jesu Kristogan betetzen dena.

Damu-otoitza

Eukaristia elkarrekin ospatzeko gogo biziz, eska dezagun Jainkoaren erruki berritzailea:

- Jesus Jauna, zerutik jaitsitako ogia zarena. Erruki, Jauna.
 - Jesus Jauna, munduari bizia ematen dion ogia zarena. Kristo, erruki.
 - Jesus Jauna, betiko bizia ematen duen ogia zarena. Erruki, Jauna.
- Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Oi Jainko,
ondasun ikusezinak dituzu maite zaituztenentzat;
piztu gure bihotzean zeure maitasunaren garra,
Zu gauza guztietan eta gauza guztien gainetik maite izanez,
guk asma ditzakegunak baino handiagoak diren
Zuk agindutako ondasunak irits ditzagun.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Kristoren Gorputza eta Odola jarrera onez hartzeak aldian aldiko ezaugarrien aurrean adi bizitzeko jakinduria ematen digu, Espirituaren arabera bizitzeko indarra ematen.

Lehenengo irakurgaia (Es 9, 1-6)

Esaera Zaharrak liburutik

Jakinduriak bere etxea eraiki du, zazpi zutabe landu ditu;
abereak hil ditu, ardoa nahastu eta mahaiak prestatu du.
Neskameak bidali ditu hiriko goialdeetatik hau aldarrikatzera:
«Ikasi gabea betor hona!»

Zentzugabeei esaten die:

«Zatozte, jan nire ogia eta edan nik nahasturiko ardoa.
Utzi txorakeriak eta biziko zarete, jarraitu zentzuzko bideari».

Erantzun-salmoa (Sal 34 [33], 2-3. 10-11. 12-13. 14-15)



✠. Bedeinkatuko dut aldi **oro** Jauna,
nire ahoan beti haren **go**respenna.
Harro nago **Jaun**arekin,
entzun bezate apalek eta **poztu** bitez. ✠.



- ✠. Izan Jaunari begirune zuek, hari **sagar**atuok,
 ez baitzaie ezer falta begirune **di**otenei.
 Aberatsek ezagutzen dute beharra **eta** gosea;
 Jaunagana jotzen dutenei ez zaie **on**ik falta. ✠.
- ✠. Zatozte, seme-alabok, **eta** entzun;
 Jaunari begirune izaten irakatsi**ko** dizuet.
 Nork ez du **biz**ia maite?
 Nork ez du luzaro bizi nahi, zorionsu **iz**ateko? ✠.
- ✠. Gorde mingaina **in**a gaitzetik,
 ezpainak engainu-hitzetik.
 Alde gaitzetik, **egin** on dena,
 bila bakea eta lehiatu **ha**ren alde. ✠.

Bigarren irakurgaia (Ef 5, 15-20)

San Paulo Apostoluak Efesoarrei egindako gutunetik

Senideok: Begira arretaz nola zabilzaten; ez jokatu ergel, zentzuz baizik, egokieraz baliatuz, garai txarrak ditugu eta. Ez izan, bada, burugabe; baizik eta saiatu Jaunaren nahia zein den ulertzen.

Ez mozkortu, ardotik nasaikeria baitator; aitzitik, bete zaitzte Espirituaz, zeuen artean salmoak, gorazarreak eta kantu inspiratuak abestuz. Kantatu eta egin gorazarre Jaunari bihotz-bihotzez, gauza guztiengatik Jainko Aitari etengabe eskerrak emanez, Jesu Kristo gure Jaunaren izenean.

Aleluia (Jn 6, 56)



eta bere odolarekin elikatuta. **Haurrari bularra ematen ari zaion amaren irudia** datorkigu gogora. Jesusen haragia eta odola aipatzerakoan, **eukaristian** pentsatzen du ebanjelioak, zalantzarik gabe, Jesusen gorputzaren eta odolaren misterioan. Jesusen biziaz ari da, noski.

Bibliak “haragi” deitzen dio ahultasunezko biziari. Jesusek ikusarazten digu ez direla “elikagai fuerteak” fededuna elikatzen dutenak, Hark gu guztiongatik bizi izandako bizitza arrunta baizik. Jesusen “odolak” haren pasioa, haren heriotza odoltsua ekartzen dizkigu gogora, gu bezain ahula zelako, hain zuzen ere. Jesusen bizitzan eta heriotzan murgiltzen den fededunak hilezkortasuna lortzen du, **piztuera**. Kristoren heriotzaren eta piztueraren misterioan sartzen gara bataioaren eta eukaristiaren bitartez. Horixe da, zalantzarik gabe, Eliz Gurasoek “hilezkortasunaren botika” deitzen zutena.

Jaten dugunean, zelulelara iristen dira elikagaiak, eta asimilatu eta geure egiten ditugu. Jaun Berpiztuaren biziaren hilezkortasuna ez dugu horrela lortzen, ordea; izan ere, geure eginda gure izaera hilkorrekin aurkituko ginateke beti. Alderantziz gertatzen da. Jaun Berpiztuak **bereganatzen gaitu**, eta amaierarik gabeko bizia duten pertsona berpiztuak egiten gaitu.

Eukaristia honetan parte hartzeak Kristo bihur gaitzala eta eman diezagula haren bizia, Aitarengandik hartutako bizia. Bizitza hau maitasuna da batez ere, Jainkoarekiko eta besteenaganako maitasunezko harremana, geuregandik irten eta bizitzara mugarik gabe irekitzera garamatzan harremana.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: aurkez diezazkiogun gure otoitzak Jaunari, eta eska diezaiogun entzun ditzala gure bihotzeko erreguak:

- Eska dezagun gaixorik edota senideen zerbitzura daudelako igandea ospatzera etorri ezin dutenentzat; ospakizun honetan parte hartzerik ez badute ere, Jaunaren poza falta ez dezaten.
- Eska dezagun behartsuenen zerbitzura bizitza eskaintzen dutenentzat; senideekin partekatzen dutena barne-poz eta alaitasun bihur dadin beraiengan.
- Eska dezagun bidean edota etxetik urrun direnentzat; Jainkoak babes ditzan eta barne-bizitza zaintzeaz ahaztu ez daitezen.
- Eska dezagun guretzat; fedean aurrera egin dezagun eta on egiteko gogoia gero eta handiagoa izan dadin gudan.

Jainko Jauna, igandero biltzen gaituzu Zure mahaian; entzun Zure Elizaren otoitzak eta sendo ezazu gure fedea, ausardiaz hots egin dezagun piztuerarekiko itxaropena, egun batean Zure Erreinuko mahaian bildu arte. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, gure dohain hauek;
 horien bidez harreman miragarriak ditugu Zurekin;
 egizu, Zeuk emandakoak eskainiz,
 izan dezagula Zu Zeu hartzeko grazia.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Jauna, sakramentu honetan Kristorekin bat eginik
 zure errukiari deika gaude apalki:
 izan gaitzela lur honetan zure Semearen irudikoago,
 haren zorion bera izan dezagun zeruan.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Abuztuaren 25ean
URTEAN ZEHARREKO XXI. IGANDEA

Agurra

Jainko Aitaren eta Jesu Kristo gure Salbatzailearen grazia, errukia eta bakea zuekin.

Sarrerako oharpena

Eukaristia bakoitza gure fedea berritzeko aukera paregabea dugu. Berak ditu betiko bizia duten hitzak: Elizarekin leiala den bezala eskatzen digu guri Berarekin leial izatea. Erantzun diezaiogun, orain Eukaristia ospatuz eta gure bizitzarekin egunero.

Damu-otoitza

Eska diezaiogun orain, Kristori, errukia eta barkamena:

- Jesus Jauna, gugatik gurutzean hil zinena. Erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, heriotza garaituz Aitak piztua. Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, beti gure alde Aitaren ondoan zaudena. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Oi Jainko,
gogo bateko egiten dituzu zeure fededunen bihotzak;
egizu, maita ditzala zure herriak Zuk aginduak
eta itxaro Zuk hitzema,
mundu honetako gorabeheren artean,
geure bihotza egiazko zoriona dagoen lekuan jar dezagun.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoa zerbitzatzeko eta berak maite gaituen bezala maitatzeko deia dira gaurko Irakurgaiak. Jaunak erabateko eta behin betirako bihotz-berri gaitzela eskatzen digu.

Lehenengo irakurgaia (*Jos 24, 1-2a. 15-17. 18b*)

Josue liburutik

Egun haietan, Israelgo leinu guztiak bildu zituen Josuek Sikemen. Dei egin zien Israelgo arduradun, buruzagi, epaile eta funtzionarioei ere, eta Jaunaren aurrera agertu ziren. Orduan, honela mintzatu zitzaion Josue herri osoari:

«Jauna zerbitzatzea gaizki iruditzen bazaizue, aukera ezazue gaur zein zerbitzatu: zuen arbasoek Eufrates ibaiaz bestaldean zerbitzatu zituzten jainkoak ala amortarren jainkoak, orain bizi zareten herrialdeko jendearenak, alegia. Nik eta nire etxeok Jauna zerbitzatzeko dugu».

Herriak erantzun zuen: «Urrun gugandik Jauna uztea, jainko arrotzak zerbitzatzeko! Jauna dugu geure Jainkoa; berak atera gaitu gu eta gure arbasoak Egiptotik, esklabotzatik; geure begiz ikusi ditugu berak egindako mirari handiak; berak zaindu gaitu egin dugun bide guztian zehar, eta igaro ditugun herri guztietan babestu gaitu. Beraz, guk ere Jauna zerbitzatzeko dugu, bera baitugu geure Jainkoa».

Erantzun-salmoa (*Sal* 34 [33], 2-3. 16-17. 18-19. 20-21. 22-23)

Das-ta e-zazu-e _e-ta iku- si zein o-naden Jau - na.



- ∞. Bedeinkatuko dut aldi **oro** Jauna,
nire ahoan beti haren **go**resp^ena.
Harro nago **Jaun**arekin,
entzun bezate apalek eta **poztu** bitez. ℞.
- ∞. Zintzoengana ditu **Jaunak** begiak,
adi haien oihura **belarri**ak.
Gaizkileen aurka Jaunaren **aurpe**gia,
lurretik ezabatzeko haien **oroit**zapena. ℞.
- ∞. Deiadar egiten dute zintzoek, eta **Jaun**ak entzun,
larrialdi guztietatik **librat**zen ditu.
Hurbil zaie Jauna bi**hotz**-hautsiei,
salbatzen ditu barne-**e**roriak. ℞.
- ∞. Zoritxar asko izaten **du** zintzoak,
baina guztietatik librat**zen** du Jaunak.
Hezur guztiak zaint**zen** dizkio,
bat bakarra ere ez diote hautsiko. ℞.
- ∞. Gaiztakeriak hiltzen **du** gaiztoa;
zintzoari gorroto diotenek zigorra dute izango.
Jaunak askatzen du bere zerbitzari**en** bizia,
harengan babesten direnek ez dute zigor**rik** izango. ℞.

Bigarren irakurgaia (*Ef* 5, 21-32)

San Paulo Apostoluak Efesoarrei egindako gutunetik

Senideok: Izan zaitezte elkarren menpeko, Kristori diozuen begiruneagatik. Emazteak izan daitezela beren senarraren menpeko, Jaunaren menpeko bezala, senarra emaztearen buru baita, Kristo Elizaren buru den bezala, bere gorputza duen Elizaren salbatzaile delarik. Eliza Kristoren menpeko den bezala, izan bitez emazteak denetan senarraren menpeko.

Senarrok, maita ezazue zeuen emaztea, Kristok Eliza maitatu eta beraren alde bere burua eman zuen bezala. Bere burua eskainiz, sagaratu egin zuen Eliza, Bataioko urez eta hitzaren indarrez garbituz. Horrela prestatu zuen beretzat Eliza distiratsua, zikinik eta zimurrik edo horrelako ezer gabea, santua eta kutsugabea.

Era berean, senarrek ere beren gorputza bezala maitatu behar dute beren emaztea. Emaztea maite duenak bere burua maite baitu. Ez du inork bere gorputza gorrotatzen, baizik eta jaten eman eta zaindu egiten du, Kristok Elizarekin egiten duen bezala. Gu guztiok gorputz horren atal gara. «Horregatik, gizasemeak bere aita-amak utziko ditu, eta bere emaztearekin elkartuko da, eta biak bat izango dira».

Handia da misterio hau, eta nik Kristori eta Elizari loturik ikusten dut.

Aleluia (Ik. Jn 6, 63c. 68c)



∕. Zure hitzak, Jauna, espiritu eta **b**izi dira;
Zure hitzek betiko **b**izia dute. ∕.

Ebanjelioa (Jn 6, 60-69)

Homiliarako argibideak

Galdera erabakitzailea

Joanen ebanjelioak Jesusen jarraitzaileen arteko krisi handi baten oroitzapena gorde du. Ez dugu daturik, esateko. Soilik esan digu, ikasleei gogor gertatzen zitzaiela Jesusen hitz egiteko modua. Agian, gehiegizkoa iruditzen zaie eskatzen dien atxikimendua. Halako batean, «*Jesusen ikasle askok atzera egin zuen eta orduz gero ez ziren ibiltzen harekin*».

Lehenengo aldiz sentitu du Jesusek bere hitzek ez dutela nahi bezalako indarririk. Halere, ez du atzera egin, baizik eta are indartsuago baietsi ditu bere hitzak: «*Esan dizkizuedan hitzak espiritu dira eta bizi. Halaz guztiz, zuetako batzuek ez dute sinetsi*». Haren hitzek gogorrek direla ematen dute; alabaina, bizia dakarte, bizarazi egiten dute, Jainkoaren Espiritua baitute berekin.

Jesusek ez du bakea galdu. Ez da larritu porrota dela eta. Hamabiei hitz eginez, galdera erabakitzailea egin die: «*Zuek ere alde egin behar al duzue?*». Ez ditu behartu nahi berarekin gelditzera. Aske ikusi nahi ditu erabakitzeko. Ez du nahi bere ikasleak jopu izatea, baizik adiskide. Nahi badute, itzul daitezke nor bere etxera.

Beste behin, guztien izenean erantzun dio Pedrok. Eredugarria da erantzuna. Egiatia, apala, zentzuduna, Jesus aski ezagutzen duen batena, hura bertan behera ez uzteko. Pedroren jarrera lagungarri izan daiteke gaur egun ere, fedea koloka izanik fede oro utzi ala ez pentsatzen ari direnentzat.

«*Jauna, norengana joko dugu?*». Ez da zentzuzkoa Jesus bertan behera uztea edozein eratan, maisu hoberik eta konbentzigarriagorik aurkitu gabe. Jesusi jarraitu ezean, nori jarraitu ez dakitela geldituko dira. Ez da zertan jokatu zalapartaka. Ez da on bizitzan argirik eta gidaririk gabe gelditzea.

Errealista da Pedro. Gauza ona ote da Jesus bertan behera uztea, esperantza konbentzigarriagorik eta erakarleagorik aurkitu gabe? Aski ote da haren ordeztu bizieran beheiti egitea, kasik jomugarik eta horizonterik gabe? Hobe ote da galderarik gabe bizitzea, inolako planteamendurik eta bilatzerik gabe?

Bada Pedrok ahaztu ez duen beste zerbait: «*Zuk, betiko bizirako hitzak dituzu*». Sumatu du ezen Jesusen hitzak ez direla hitz hutsal eta engainagarri. Jesusen ondoan beste modu batean agertu zaie bizitza. Haren mezuak betiko bizira begira jarri ditu. Non aurki lezakete Berri hoberik Jainkoaz?

Pedro, azkenik, oinarrizko esperientziaz gogoratu da. Jesusekin bizitzean, hura Jainkoaren misteriotik datorrela aurkitu du. Urrunetik, urrutitik, axola-ezetik edo arduragabekeriatik ezin antzeman zaio Jesusek bere baitan duen misterioari. Hamabiek hurbileko tratua izan dute Jesusekin. Horregatik esan ahal dute: «*Guk, sinesten dugu eta badakigu zu Jainkoaren Santua zarela*». Jesusen inguruan jarraituko dute.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: dei egia Jaunari, gure otoitzak entzun ditzan eta lagun diezagun:

- Jainkoak errukiz zain ditzan Frantzisko Aita Santua, Fernando gure gotzaina eta gure elkarteetan ardura eta zerbitzua duten guztiak.
- Jainkoak eman diezaien lurra lantzen dutenei lanerako indarra, ikertzaileei adimena, ikasleei saiatzeko gogoia eta guztioi geurean irauteko leialtasuna.
- Jainkoak sufritzen duten guztien ezinak entzun ditzan, bereziki lanik gabe eta egoera larrian bizi diren guztienak.

—Jainkoak bere dohainez bete ditzan gure senide, adiskide eta ongile guztiak.

Jainko Jauna, Zure betiereko Hitza den Kristorengan azaldu diguzu Zure maitasuna; entzun gure otoitzak eta argi gaitzazu Espiritu Santuaren argiz, ezerk ez gaitzan aldendu betiko biziaren hitzak dituen Kristorengandik. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Kristoren opari bakarraren bidez, Jauna,
zeure seme-alaben herri egin gaituzu;
emaiozu onez zeure Elizari batasuna eta bakea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Eraman gugan onez, Jauna, bere betera
zeure errukizko salbamen-egintza;
egin gaitzazu on-onak eta adoretu,
gauza guztietan zure nahia bete ahal izateko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Irailaren 1ean
URTEAN ZEHARREKO XXII. IGANDEA

Agurra

Gure arteko maitasuna indartzeko Jainkoaren izenean bildurik dagoen kristau-batzar honetan, Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Eukaristia ospatzean, orain bi mila urte Afaltokian gertatu zena, aldare honetan gertatzen da, hemen, gudan. Gurutzeko eskaintzak eta Piztueraren pozak bat egiten dute Ogi zatitu hau elkarbanatzean.

Damu-otoitza

Kristok bekatuaren eta heriotzaren gain lortu duen garaipena ospatzen dugu igandean. Aitor dezagun zeruetako Aitaren errukiaren beharrean garela, bekatuak hilik bizi berrira piztu gaitzen.

—Jesus Jauna, egiaren eta graziaren **bet**ea zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gu aberasteko zeure burua behar**tsu** egin duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gurekin zeure herri santua egitera **et**orri zarena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Zeru-lurren Jainkoa, Zugandik dator on guztia;
sartu gure bihotzean Zuganako maitasuna;
lot gaitzazu gero eta estuago Zeurekin,
gure baitan indar dezazun on den guztia
eta indartu duzuna arreta handiz zaindu.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Bihotz garbia izan behar dugula esaten digu gaurko Hitzak: Aita Jainkoaren aginduak betetzea galarazten digun guztia baztertuz.

Lehenengo irakurgaia (Dt 4, 1-2. 6-8)

Deuteronomioa liburutik

Moises honela mintzatu zitzaion herriari: «Orain, Israel, entzun irakasten dizkizuedan legeak eta erabakiak, eta bete. Horrela, biziko zarete eta Jaunak zeuen arbasoen Jainkoak emango dizuen lurraldean sartuko zarete eta haren jabe egingo. Ez erantsi, ez kendu, nik agintzen dizuedanetik ezer; aitzitik, bete nik ematen dizkizuedan Jaunaren, zeuen Jainkoaren, aginduak.

Gorde itzazue eta bete, horrek jakintsu eta buruargi egingo baitzaituzte herrien aurrean. Lege hauen berri izatean, esango dute: "Bai herri jakintsua eta buruargia nazio handi hau!"

Izan ere, ba ote da nazio handirik, bere jainkoak, guk Jauna geure Jainkoa bezain hurbil dituenik, dei egiten diogun bakoitzean? Ba ote da nazio handirik, gaur nik adierazten dizuedan irakaspen hau bezain lege eta erabaki zuzenak dituenik?»

Erantzun-salmoa (Sal 15 [14], 2-3a. 3b-4b. 5)



Nor bi - zi, Jau - na, zu - re etxe - an?



- ∞. Akatsik gabe eta zuzen jokatuzen duena;
 (-2) bihotzean egiazale izan
 eta mingainaz inor belzten ez duena. ∞.
- ∞. Hurkoari gaitzik egiten ez diona,
 auzokoa iraintzen ez duena.
 Jaunak baztertua gutxiesten duena
 eta jainkozaleak ohoratzen dituena. ∞.
- ∞. Dirua lukurreriaz mailegatzen ez duena
 ezta errugabearen kaltetan eskupekorik hartzen ere.
 Horrela jokatzeko duena
 ez da sekula kolokaka egongo. ∞.

Bigarren irakurgaia (St 1, 17-18. 21b-22. 27)

Santiago Apostoluaren gutunetik

Ene senide maiteok: Emaitza on eta dohain bikain oro goitik dator, Aitagandik, aldaketarik eta ilunaldirik ez duen argien Egileagandik. Berak, hala nahita, bizia eman digu egiaren mezuaz, sorkari guztien artean lehenengoak izan gaitezen.

Onar ezazue otzan-otzan zuengan erein den eta zuek salbatzeko indartsu den mezua. Bete ezazue mezua, eta ez entzun bakarrik, zeuen burua engainatuz.

Jainko Aitaren aurrean benetan garbi eta akatsik gabeko erlijioa hauxe da: umezurtzei eta alargunei beren premietan laguntzea, eta munduko gaiztakeriarekin nork bere burua ez kutsatzea.

Aleluia (St 1, 18)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, - a - le - lu - - - ia. -



℣. Aitak, hala nahita, bizia eman digu egiaren mezuaz,
sorkari guztien artean lehenengoak izan gaittezen. ℞.

Ebanjelioa (Mk 7, 1-8. 14-15. 21-23)

Homiliarako argibideak

Jainkoaren arrangura

Galileako fariseu-taldetxo bat Jesusi hurbildu zaio jarrera kritikoan. Ez datoz bakarrik. Lagun dituzte lege-maisu batzuk, Jerusalemetik etorriak, herrixketako landa-jende xumearen ortodoxia defenditzeko kezka, inondik ere. Arriskutsua da Jesusen jarduera. Zuzendu beharra dago.

Ohartu dira ezen, kasu batzuetan, Jesusen ikasleek ez dutela errespetatzen arbasoen tradizioa. Ikasleen portaeraz mintzo badira ere, Jesusentzat da galdera; badakite, izan ere, hark irakatsi diela askatasun harrigarri hartaz bizitzen. Zer dela eta?

Isaias profetaren hitz batzuekin erantzun die Jesusek, beraren mezua eta jarduera oso ondo argitzen dituzten hitzekin. Jesusek bere-bere egiten dituen hitz horiek arretaz entzun beharrekoak ditugu; hain zuzen, gure erlijioaren funtsa den zerbaiti dagozkio. Israelgo profetaren arabera, haxe da Jainkoaren arrangura edo kexua.

«*Herri honek ezpainez ohoratzen nau, baina bihotza nigandik urrun du*». Haxe da, beti, erlijio guztien arriskua: Jainkoari ezpain-puntaz kultu ematea, formulak errepikatuz, salmoak esanez, hitz ederrak ahoskatuz; bitartean gure bihotza «urrun da harengandik». Alabaina, Jainkoari atsegin zaion kultua bihotzari dariona da, barne-

atxikimenduari dariona, gure erabakien eta egitasmoen jaiotze-puntu den pertsonaren barne-barneko erdiguneari dariona.

Gure bihotza Jainkoagandik urrun dagoenean, gure kultua mamirik gabeko gertatzen da. Bizia falta ohi zaio, Jainkoaren Hitza egiaz entzutea, anai-arrebekiko maitasuna. Erljioa azaleko zerbait bihurtzen da, ohikeriaz betea, Jainkoari leial zaion bizitzaren fruituak falta dituen.

Lege-maisuek irakasten duten irakaspena giza agindu dira. Erljio guztietan izan ohi dira «gizatar» diren tradizioak. Arauak, ohiturak, debozioak: kultura jakin batean erlijiotasuna bizitzeko sortuak. On handia egin lezakete. Baina kalte handia egiten dute Jainkoaren Hitza entzutetik arreta gabetzen eta Jainkoak gugandik espero duenetik urruntzen gaituztenean. Ez zaie sekula lehentasunik eman behar.

Isaias profetaren aipamena bukatzean, oso larriak diren hitz hauekin laburbildu du Jesusek bere pentsamendua: «*Zuek alde batera uzten duzue Jainkoaren agindua, gizon-emakumeen tradizioari atxikitzeko*». Giza tradizioei itsu-itsu lotzen gatzaizkienean, arrisku hau izan ohi dugu: maitasunaz ahaztu eta Jesusi, Jainkoaren Hitz haragitu horri, jarraitzetik apartatzekoa. Kristau-erlijioan lehenengo gauza Jesus da beti eta maitasunerako haren deia. Soilik, ondoren datoz giza tradizioak, inportanteenak iruditu arren. Ezin ahaztu genezake sekula zein den funtsa.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: eska diezaiogun Jaunari entzun ditzala deika ari zaion herriaren otoitzak:

— Egigun otoitz mundu zabaleko Eliza gogoan izanik; Jaunak lagun diezaion fedean, esperantzan eta maitasunean hazten.

- Egigun otoitz sufritzen duten guztiak gogoan izanik; kartzelatuek, gaixoek eta etxetik urrun diren guztiak Jaunaren babeseta indarra izan dezaten.
- Egigun otoitz gure senide hildako guztien alde; Jainkoak bere etengabeko errukiz eta beso zabalez onar ditzan.
- Egigun otoitz Eukaristia ospatzen ari garenontzat ere; hemen ospatzen dugunaren fruituak eguneroko jardunean senideen zerbitzura jar ditzagun.

Begira, Jauna, igandean Kristoren piztuera ospatzen duen Zure familiari eta entzun onginahiz bere otoitzak; egizu bihotzez ere gurtu zaitzagula eta ez hitzez bakarrik, eta munduko eginbehar eta ohiturek ez gaitatela Zure aginduetatik urrundu. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gainekoa

Eskaintza santu honek, Jauna, ekar diezagula beti zure salbamenaren dohaina, sakramentuetan irudiz ospatzen duguna zure indarrak bere betera eraman dezan. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Mahai santuko ogia harturik, otoitz egiten dizugu, Jauna: maitasunaren agiria den janari honek sendo dezala gure bihotza geure senideengan Zu zerbitza zaitzagun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Irailaren 8an URTEAN ZEHARREKO XXIII. IGANDEA

Agurra

Jauna zuekin.

Sarrerako oharpena

Jainkoaren egintza beti da salbagarria eta eraldatu egiten gaitu. Utz diezaiogun ireki ditzala gure belarriak entzuteko eta gure adimena bere Hitzaz ulertzeko. Utz diezaiogun ireki ditzala gure ezpainak Hitz bizigarri hori hots egiteko eta zabal dezala gure bihotza Hitz hori, Biziaren Ogiaren indarrez, bizitzan betetzeko.

Damu-otoitza

Hurbil gaitzen Jainko zuzenagana, apalik eta bihotz-damuturik, eta, geure burua bekatari aitortuz, eska diezaiogun errukia Jainkoari

—Jesus Jauna, galdurik zegoena bilatzera etorri zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, guztion erospenerako zeure bizia eman duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, zeure seme-alaba sakabanatuak biltzen dituzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Oi Jainko, Zuk salbatu gaituzu eta zeure seme-alabatzat onartu; begira onbera seme-alaba ordeko egin gaituzunoi, Kristogan sinesten dugunok egiazko askatasuna eta betiko bizia izan ditzagun.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Gaurko irakurgaiak behartsuen, gaixoen eta ezinduen aldeko dei bat dira guretzat. Erruki-egintzen bidez agertzen da gura artean Jainkoaren maitasun neurrigabea. Entzun dezagun.

Lehenengo irakurgaia (Is 35, 4-7a)

Isaias profetaren liburutik

Esan bihotz-beldurtiei: «Eutsi gogor! Ez beldur izan! Horra zuen Jainkoa! Berbera dator zuek salbatzera eta merezia duten zigorra etsaiei ematera».

Orduan, itsuen begiak irekiko dira eta gorren belarriak zabalduko; herrenak basahuntzak bezala jauzi egingo du eta mutuaren mingainak oihu egingo pozez. Urak sortuko dira basamortuan eta errekek eremuan; lur idorra aintzira bihurtuko da eta lur agorra iturri.

Erantzun-salmoa (Sal 146 [145], 6c-7. 8-9a. 9b-10)

Go - ra Jain - ko - a, e - gin kan - tu, bi - hotz hau - tsi -
ak biz - ten di - tu.

- ✠. Betiko eusten dio Jaunak bere leialtasunari.
Zapalduen eskubideak defendatzen ditu,
gose direnei ogia ematen.
Jaunak askatzen ditu presoak. ℟.
- ✠. Jaunak zabaltzen ditu itsuen begiak,
Jaunak altxatzen konkortuak,
Jaunak maitatzen zintzoak,
Jaunak ditu etorkinak zaintzen. ℟.
- ✠. Umezurtzei eta alargunei zutik die eusten,
baina gaiztoen nagusigoa iraultzen.
Jauna errege da betieran,
zure Jainkoa, Sion, errege menderen mendetan! ℟.

Bigarren irakurgaia (St 2, 1-5)

Santiago Apostoluaren gutunetik

Ene senideok: Ezin elkartuak dira Jesu Kristo gure Jaun aintzatsuagan duzuen sinesmena eta pertsonen artean bereizketa egitea.

Eman dezagun zuen batzarrean bi gizon sartzen direla, bata aberatsa, urrezko eraztunez eta dotore jantzia, eta bestea pobrea, zarpail jantzia; eta dotore jantzitakoari sekulako begiramenez esaten diozuela: «Eseri zu hemen, ohorezko tokian»; pobreari, berriz: «Hago hi hor zutik» edota «jar adi lurrean, nire oinazpikoaren ondoan». Horrela jokatzu, ez al zarete zeuen artean bereizketa egiten ari, eta ez al duzue irizpide okerrez epaitzen?

Entzun, ene senide maiteok: Ez al ditu aukeratu Jainkoak munduaren begietan pobre direnak, sinesmenez aberats izateko eta bera maite dutenei agindutako erreinua ondareztat jasotzeko?

Aleluia (Mt 4, 23)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia

∇. Erreinuari buruzko Berri Ona hots egiten zuen Jesusek, eta herrian gaitz guztiak sendatzen zituen. ℞.

Ebanjelioa (Mk 7, 31-37)**Homiliarako argibideak***Gorreria sendatu*

Israelgo profetek sarritan erabili ohi zuten «gorreria» hitza metafora probokatzailatzat, herriak Jainkoari bere bihotza itxi eta eragozpenak jarri izana adierazteko. Herriak «*baditu belarriak baina ez du entzuten*», esaten ari zaio Jainkoa *gorreria* hitz horren bidez. Horregatik, profeta batek bihotz-berritzeko deia egin die guztiei, hitz hauekin: «*Jende gorra, entzun eta aditu*».

Alde horretatik, ebanjelioetan kontatzen diren gorren sendatzeak «bihotz-berritzearen kontakizun» bezala har daitezke; hain zuzen ere, Jesusi senda gaitzan uztera dei egiten diguten kontakizunak dira; bai gure gorreria, bai Jesusi jarraitzeko ditugun geure eragozpenak senda ditzan uztera. Markosek, bere kontakizunean, ñabardura oso iradokitzaileak dakartza, kristau-elkartetan bihotz-berritze horretan nola lan egin adierazteko.

- Pertsona gorra beste guztiengandik urrun bizi ohi da. Gainera, badirudi ez dela jabetzen bere egoeraz. Ez da saiatzen senda

dezakeenagana hurbiltzen. Baina, bere zorionerako, adiskide batzuk axolatu dira beraz eta Jesusengana eraman dute. Horrelakoa izan beharko luke kristau-elkartek: anai-arreben taldea, batak bestea laguntzen dutenek osatua, Jesusen inguruan bizi eta senda ditzan uzten diotelarik.

- Gorreria sendatzea ez da gauza erraza. Jesusek berekin hartu du gizon gorra, alde batera erretiratu da eta hari begira bildu da bere barnean. Premiazkoak dira barne-biltzea eta harreman pertsonalak. Geure kristau-elkarteetan beharrezkoa dugu ingurugiro hau: fededunei Jesusekin harreman barnekoagoak eta bizigarriak izateko aukera emango diena. Jesu Kristogan dugun fedea harekiko harreman horietan jaiotzen eta hazten da.
- Jesusek era bizian landu ditu gaixoaren belarriak eta mihia, baina ez da aski. Beharrezkoa da gorra ere parte hartzea. Horregatik, Jesusek, begiak zerurantz, Aitari bere sendatze-lanean bat egin dezan eske, gaixoari hots egin dio, Jesusen eta haren Ebanjelioaren aurrean gor den orok entzun beharreko lehen hitza esanez: «Ireki zaitez», ireki zeure bihotz hori.

Premiazkoa da kristauok ere, gaur egun, Jesusen dei hau entzun dezagun. Ez dira gaurkoak une errazak Jesusen Elizarentzat. Azti eta erantzukizunez jokatzeko eskatzen digu. Hondamendia izango litzateke gaur haren deiaren aurrean gor izatea, haren bizi-hitzei ez entzunarena egitea, haren Berri Ona ez aditzea, aldien ezaugarriei ez antzematea, gure gorrerian hesiturik bizitzea. Jesusen indar sendatzaileak senda gaitzake.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: jo dezagun Jaunarengana, gure otoitzak entzun ditzan eskatuz:

- Elizaren alde: Jaunak bakea eta batasuna eman diezazkion eta gaitz guztietatik babesturik Ebanjelioaren zerbitzari leial egin dezan.
- Munduko bakearen alde: gizaki guztien bihotzetan maitasuna eta elkarrenganako ulermena erne daitezen.
- Ezinean, gaixo edota goserik daudenen alde: Jaunaren laguntza eta gure arreta eta esku zabala falta ez dezaten.
- Gaur hemen bilduak gaudenon alde: fedean azkenerarte leial iraunez, egun batean zeruko mahaian ere elkar gaitezen.

Jauna, munduko behartsuak aukeratu dituzu fedean aberasteko eta Zure erreinuaren oinordeko egiteko; entzun gure otoitzak eta laguniezaguzu Ebanjelioa zabaltzen, belarri itxiak zabal daitezen, bihotz ahulak poztu daitezen eta mingain lotuek Zure salbamena hots egin dezaten. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gainekoa

Oi Jainko, Zu zaitugu
egiazko jainkozaletasunaren eta bakearen iturria;
egizu, dohain honen bidez
aitor dezagula eta goretsi zure handitasuna,
eta sakramentu hau hartzeak
sendo dezala gure arteko elkartasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Hitzaren eta sakramentuaren mahaian
janaritzen eta biziberritzen dituzu, Jauna, zeure fededunak;
zure Semearen dohain handiak balia dakizkigula
haren bizian beti parte izatea merezi dezagun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Irailaren 15ean
URTEAN ZEHARREKO XXIV. IGANDEA

Agurra

Jainko itxaropen-emailea, Espiritu Santuaren egintzari esker bere pozaz eta bakeaz betetzen gaituena, izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Jesusi jarraitzeko, ezinbestekoa da beti geure buruei begira bizitzetik, Jesusekin batera besteentzat bizitzeko gogoia izatea. Jesusen gurutzeko eskaintza berrituko dugu gaur ere aldarean: eskain dezagun gure burua, eskain gaituzen gu ogi-ardoekin batera.

Damu-otoitza

Jesu Kristo, bekatuak ez duen gure bitartekoa, otoitzean ari da gure alde eta adiskidetu egiten gaitu Aitarekin. Ireki dezagun, bada, geure espiritua damurako, Jaunaren mahaira hurbiltzeko gai izan gaituzen.

—Jesus Jauna, Pedro damutuari barkamena **eskaini** zeniona: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, lapur onari paradisua **agindu** zeniona: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bekatuen barkamenerako apostoluei Espiritu Santua **eman** zeniena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Diren guztien egile eta gidari zaren Jainkoa, begira iezaguzu eta emaguzu bihotz guztiz Zu zerbitzatzea, zure errukiaren ondasunak suma ditzagun.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Egintzen bidez agertu behar dugu gure fedea, bidean laguntzen digun Kristorengan gure uste ona izanez; hori da zeruko Aitaren nahia betetzeko era bikainena

Lehenengo irakurgaia (Is 50, 5-9a)

Isaias Profetaren liburutik

Jainko Jaunak belarria ireki dit, eta nik ez diot aurka egin, ez atzera jo. Bizkarra eskaini nien jotzen nindutenei, masaila, bizarretik tiraka ari zitzaizkidanei. Ez nien aurpegia saihestu irainei eta listuei.

Jauna dut laguntzaile; horregatik, ez naiz kikildu; horregatik gogortu dut aurpegia, harkaitza bezala, bai baitakit ez naizela lotsagarri gertatuko.

Ondoan dut defendatzailea: nork eraman ni auzitara? Aurkez gaitezen elkarrekin! Nork du nirekin auzirik? Datorrela! Hara, Jainko Jauna dut laguntzaile: nork kondenatuko nau?

Erantzun-salmoa (Sal 116 [114], 1-2. 3-4. 5-6. 8-9)



I - bi - li - ko naiz zu - re au - rre - an, bi - zi di - re -



nen lur za - ba - le - an.



Norbaitek esan dezake: «Zuk fedea duzu; nik, berriz, egintzak». Bada, nik esaten dizut: Erakustazu egintzarik gabeko zeure fedea, eta nik egintzen bidez erakutsiko dizut neure fedea.

Aleluia (Ga 6, 14)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia.

✠. Jainkoak libra nazala harrotzetik,
gure Jaunaren gurutzean izan ezik,
gurutze horri esker
mundua hilik baitago niretzat, eta ni mundua rentzat. ✠.

Ebanjelioa (Mk 8, 27-35)

Homiliarako argibideak

Jesus aintzakotzat hartu

Filiporen Zesareako pasadizoa erdigunekoa da Markosen ebanjelioan. Alditxo bat elkarrekin bizi ondoren, galdera erabakitzailea egin die Jesusek ikasleei: «*Zein naizela uste duzue?*». Guztien izenean, Pedrok erantzun dio inolako dudarik gabe: «*Mesias zara zu*». Noizbait ere, badirudi dena argi dagoela. Jainkoak bidali duen Mesias da Jesus, eta ikasleak jarraitzaile ditu berarekin lan egiteko.

Baina Jesusek badaki gauzak ez direla horrela. Garrantzizko zerbait ikastea falta zaie artean. Aise egiten dute Jesus hitzez aitortzea, baina oraino ez dakite zer den hari hurbiletik jarraitzea, haren egitasmoan

eta zorian parte hartuz. Hona zen dioen Markosek: «haiei irakasten hasi zen» Jesus. Ez da ohiko irakaspen bat; zerbait funtsezkoa da, ikasleek pixkana beretu beharko dutena.

Hasieratik «argi eta garbi» mintzo zaie. Ez die ezer ezkutatu nahi. Jakin behar dute, ezen sufrimendua bidelagun izango duela beti Jainkoaren erreinuaren bidea urratzeko beren eginkizunean. Azkenean, buruzagi erlijiosoek kondenatu egin dute eta indarrez hilko. Berpiztuko denean bakarrik ikusiko da Jainkoa berekin duela.

Pedrok aurka egin du entzuten duenaren aurrean. Sinestezina da haren erreakzioa. Jesus berarekin hartu eta aparte eraman du «errieta egiteko». Lehenengoa izan zen Jesus Mesiasztat aitortzeko. Orain, lehenengoa da hari uko egiteko. Jesusi ikusarazi nahi dio, esaten ari dena zorakeria dela. Ez dago prest, Jesusek bide horri jarrai diezaion. Jesusek aldatu beharra du pentsaera hori.

Inork uste ez bezain zakar erreakzionatu du Jesusek. Bat-batean, Satanasen zantzuak ikusi ditu Pedrogan, bera Jainkoaren borondatetik apartarazi nahi lukeen basamortuko tentatzailearen zantzuak. Ikasleei begira jarri eta hitz hauekin egin dio Pedrori agirika: «*Jar zaitez nire atzealdean, Satanas*»: har ezazu zeure lekua ikasle bezala. Utzizu ni tentatzeari. «*Gizakiek bezala duzu pentsatzen, eta ez Jainkoak bezala*».

Ondoren, jendeari eta ikasleei dei egin die, beraren hitzak ondo entzun ditzaten. Okasio askotan errepikatuko ditu. Ez dituzte ahaztu behar sekula. «*Nirekin etorri nahi duenak, uko egin diezaiola bere buruari, har dezala bere gurutzea eta jarrai diezadala*».

Jesusi jarraitzea ez da derrigorrezkoa. Norberaren esku dago erabakia. Baina Jesus aintzakotzat hartzekoa dugu. Ez dira aski aitortpen erraz batzuk. Mundua gizatasun handiagoko, duinago eta zoriontsuago egiteko bere zeregin zoragarrian jarraitu nahi badiogu,

prest egon behar dugu bi gauza hauetarako. Lehenik, prest egon Jainkoaren erreinuaren kontrako diren egitasmu edo planei uko egiteko. Bigarren, Jesusi jarraitzeagatik eta haren asmoarekin bat egiteagatik etor dakizkigukeen sufrimenduak onartu.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: dei egiogun Jainkoaren errukiari eta eska diezaiozun entzun ditzala uste onez egindako otoitzak:

- Elizako arduradun eta zerbitzarien alde: Jaunak bizitza leiala izateko grazia eman diezaien, beraien ministeritzari dagokionez.
- Herrietako arduradunen alde: argitasunez eta arretaz joka dezaten guztien eta bereziki behartsuenen zerbitzuan.
- Gaixo eta ezinduen alde: Jaunak barne-sendotasuna eman diezaien bere minetan itxaropenez bizi daitezen.
- Gure alde, gure etxeko eta adiskideen alde: Jaunak emandako dohain guztiak eskertuz bizi gaitezen beti.

Ahulen indar zaren gure Jainkoa entzun Zure Elizaren otoitzak eta isuriezaguz Zure Espiritu Santua, Berak argiturik bihotzez eta egitez aitortu dezagun Jesus dela Mesias, eta uste osoz sinets dezagun berri onagatik dena ematen duenak betirako bizia irabazten duela. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gainekoa

Entzun bihotz onez, Jauna, gure eskariak eta onartu zeure zerbitzarion eskaintza; gutako bakoitzak zure izena goreseteko eskaintzen duen hau izan dadila gizon-emakumeen salbamenerako. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Jauna, jabe dadila dohain zerutarraren indarra
gure gorputzaz eta arimaz,
gure bizitzan indar hori izan dadin nagusi,
eta ez gure nahia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Irailaren 22an
URTEAN ZEHARREKO XXV. IGANDEA

Agurra

Aita errukitsua eta Jainko poz-emailea izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Jaunak eusten gaituela, adoretzen gaituela eta argitzen gaituela aitortzen dugu Eukaristia ospatzean. Maisuari jarraitzeak, gainera, zerbitzu eta apaltasun jarrera eskatzen digu ezinbestez. Hori da Jesusekin bat egiteko bidea.

Damu-otoitza

Senideok: Aitor ditzagun geure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen.

—Jesus Jauna, bihotz-urratuak salbatzera bidalia: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bekatariei dei egitera etorria: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko, Aitaren eskuinaldean zaituguna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Oi Jainko,

lege nagusi hau eman diguzu agindu guztien oinarri:

Zu eta lagun hurkoa maitatzea;

egizu, zure aginduak betez, hel gaitezela betiko bizira.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,

Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean

Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren Jakindurian barneratzen gaitu gaurko Hitzaren liturgiak: gure egoismoa utzi eta bihotz apalez besteen onerako bizitzeko deia jasoko dugu. Entzun arretaz.

Lehenengo irakurgaia (*Jkd 2, 12a. 17-20*)

Jakinduria liburutik

Honela zioten gaiztoek: «Jar diezazkiogun sareak zintzoari; ikus dezagun esaten duena egia den ala ez, azter dezagun nolako amaiera duen ikusteko. Benetan Jainkoaren seme baldin baldin bada, etorriko zaio hura zintzoari laguntzera eta libratuko du etsaien eskuetatik.

Irainak eta oinazeak jasanaraziko dizkiogu, haren lasaitasuna ezagutu eta pazientzia probatzeko. Heriotza lotsagarrira kondenatuko dugu, bere esanetan, Jainkoa alde aterako baitzaio».

Erantzun-salmoa (*Sal 54 [53], 3-4. 5. 6 eta 8*)

Jau - na da gu - re Sal - ba - tzai - lle - a. Gu -
re in - da - rra e - ta pa - ke - a.

- ✠. Ene Jainko, salba nazazu zeure izenagatik,
defendatu nire auzia zeure a**hal**menaz.
Entzun, ene Jainko, nire **o**toitza,
makurtu belarria nire ahoko hit**z**etara. ✠.



∇. Honetarako deitu gaitu Jainkoak Berri Onaren bidez,
Jesu Kristo gure Jaunaren aintza eskuratzeko. ∞.

Ebanjelioa (Mk 9, 30-37)

Homiliarako argibideak

Zergatik ahazten gara hartaz?

Jerusalemerako bidean, ikasleei irakaspena ematen jarraitu du Jesusek, espero dion zoriaz. Beste behin esan die gizon-emakumeen esku utziko dutela eta hauek hilko, baina Jainkoak piztuko. Markosek dio «ezin ziotela ulertu baina beldurra ematen ziela galdetzeak». Ez da gauza zaila, hitz hauetan garai guztietako kristauen pobretasuna sumatzea. Ezin ulertu dugu Jesus, eta beldurra ematen digu haren mezuan sakontzeak.

Kafarnaumera iristean, Jesusek galdetu die: «Zein hika-mika zenuten bidean?». Eta ikasleak isilik. Lotsa dira. Markosek esaten digu, beren artean handiena zein ote zen zutela eztabaida, bidean. Benetan, lotsatzekoa da Gurutziltzatuko dutena halako ikasleez inguratua ikustea: halako handinahi zoroa bizi dutenez. Eta zein dugu gaur egun eztabaidagai Elizan, Jesusi jarraiki gabiltzala?

Etxera iristean, irakaspén bat eman nahi die Jesusek. Premiazkoa dute. Hona Jesusen lehen hitzak: «Lehena izan nahi duena, izan bedi guztien artean azkena eta guztien zerbitzaria». Jesusi jarraituz doan taldean, gailendu eta besteak baino handiago izan nahi duenak, azkena behar du izan, guztietan azkena; horrela ikusi ahal izango du zein premia duten, horrela izan ahalko da guztien zerbitzari.

Egiazko handitasuna zerbitzari izatean datza. Jesusentzat, lehena ez da garrantzizko kargua duen bat, baizik eta gainerakoien zerbitzari eta laguntzaile bizi dena. Lehenak,, Elizan, ez dira hierarkak, baizik jende xume hori, bidean aurkitzen duenari lagunduz bizi den hori. Ez ginateke horretaz ahaztu behar.

Jesusen ustez, guztiak besteengan pentsatuz bizi diren pertsonen gune izan beharko luke Elizak. Gure behar handiena lukeen jendeari adi bizi garen elkarte. Ez da Jesusen ameskeria. Harentzat hain garrantzizkoa da hori, non etsenplu bizi bat emango baitie.

Eseri eta dei egin die ikasleei. Gero, haur bat hurbildu eta guztien artean ezarri du, arreta harengan ipin dezaten. Apostolutar Elizaren erdian haur horrek egon beharko luke beti, jende ahul eta ezinduaren sinbolo: sostengu, babes eta arreta-premia dutenen sinbolo. Ez luke egon behar kanpoan, Jesusen Elizaren atarian. Gure arretaren xede izan behar luke.

Ondoren, haurra besarkatu du Jesusek. Ikasleek hori beti gogoan izan dezaten nahi du: ahulekin bat eginik. Eta esan die: «*Haur hau bezalako bat nire izenean onartzen duenak, ni neu onartzen nau, eta ni neu onartzen nauenak, ni neu bidali nauena onartzen du*».

Begi-bistakoa da Jesusen irakaspena: Jainkoa onartzeko bidea, haren Seme Jesus onartzea da: jende xume, babesgabe, behartsu eta ezinduagan presente dagoen Jesus onartzea. Zergatik gara ahazten horretaz? Zer dugu Elizaren erdian, jada ez badago Jesus txiki direnekin bat egina?

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: egin dezagun otoitz gizakien alde eta beraien beharren alde, denek izan dezaten gure maitasunaren laguntza:

- Aita Santuak, gotzainek eta apaizek, zerbitzu jarreraz eta apaltasunez zaindu dezaten beren ardurapeko artaldea.
- Herrietako gobernarien alde: guztien ona bila dezaten, ondasunak banatzen asma dezaten eta denontzat zuzentasuna, ongizatea, bakea eta askatasuna bidera ditzaten.
- Gosea edo bestelako beharrak dituztenen alde, gaixorik eta ezinduta bizi direnen alde, etxetik urrun edota bakardadean daudenen alde.
- Hemen gaudenok, Espiritu Santuaz beterik eta fedean sendotuta on egiten saia gaitzen beti munduaren onerako.

Azkenekoak lehenengo egiten dituzun Jainkoa, haurrak egin dituzu ikasleentzat jarraibide; emaguzu goiko jakinduria, Zure Semearen hitza onar dezagun, eta jakin, lehenengo izan nahi duenak guztien zerbitzari izan behar duela. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gainekoa

Hartu, Jauna, bihotz onez zeure herriaren eskaintzak,
fedez aitortzen dugun egia
zerutar sakramentu honen bidez lor dezagun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Indarberritu, Jauna, etengabe zeure laguntzaz
sakramentu honetan janaritu dituzunak;
ospakizunean ez ezik bizitzan ere
zure salbamen-egintzaren fruituak jaso ditzaten.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Irailaren 29an
URTEAN ZEHARREKO XXVI. IGANDEA
Migratzaile eta errefuxiatuen jardunaldia

Agurra

Jesu Kristo gure Jaunaren grazia, eta Jainko Aitaren maitasuna, eta Espiritu Santuaren batasuna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Nahi duen eran eragiten duen Espirituaren presentzia eta indarra aitortzen ditugu Eukaristian. Espiritu honek eragiten gaitu eta gai egiten Ebanjelioaren poza iragartzen duten profeta eta eragile izan gaitezen.

Poz horrek ez du mugarik eta gaur Eliza osoak gogora ekartzen dizkigu *Migratzaile eta errefuxiatuak* beraien aldeko jardunaldi berezian. Jainkoa beti bere herriarekin dabilela gogoratzen digu Frantzisko Aita Santuak: ez gaituela sekula eskutik uzten.

Ospa dezagun bozkarioz Eukaristia.

Damu-otoitza

Senideok: Aitor ditzagun geure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen.

—Jesus Jauna, bihotz-urratuak salbatzera bidalia: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bekatariei dei egitera etorria: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko, Aitaren eskuinaldean zaituguna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Oi Jainko, barkatuz eta errukituz
 agertzen duzu bereziki zeure ahalmen handia;
 isur ezazu etengabe gure gainera zeure grazia,
 Zuk agindutako ondasunetara lehiatuz,
 zeruko zoriona irits dezagun.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren errukiak ez du mugarik, gainditu egiten ditu bai
 apostoluen elkarte baita kristau elkarte ere, gizon-emakume
 guztiengana iritsiz.

Lehenengo irakurgaia (*Zen 11, 25-29*)

Zenbakiak liburutik

Egun haietan, Jauna lainoan jaitsi eta Moisesekin mintzatu zen; gero,
 Moisesek zuen espiritutik hartu eta hirurogeita hamar herri-
 -arduradunei isuri zien. Espiritua haiengan kokatu orduko, profeta
 gisa hasi ziren mintzatzen; baina ez zuten jarraitu. Bi gizaseme, bata
 Eldad eta bestea Medad zeritzenak, hirurogeita hamarren taldekoak
 izan arren, ez ziren elkarketa-etxolara joan, baizik eta kanpalekuan
 gelditu ziren. Baina kokatu zen espiritua haiengan ere eta profeta gisa
 mintzatzen hasi ziren.

Orduan, mutiko batek Moisesengana lasterka joan eta esan zion:
 «Eldad eta Medad profeta bezala mintzatzen ari dira kanpalekuan». Nunen seme Josuek, gaztetandik Moisesen laguntzaile zenak, esan
 zuen: «Moises, ene jauna, debeka iezaezu». Baina Moisesek

erantzun zion: «Nigatik jeloskor? Nahiago nuke herri osoa profeta balitz eta Jaunak bere espiritua denei emango balie!»

Erantzun-salmoa (Sal 19 [18], 8 eta 10. 12-13. 14)

Zu -re hi-tzak, Jau - na, es - pi-ri-tu e - ta bi-zi di - ra.

- ∞. Jaunaren legea bikain, barrena arnasber**ritzen** du;
Jaunaren manamendua fidagarri, heldugabea zuhur **egiten** du.
Jaunaganako begirunea garbi, iraunkor **betiko**,
Jaunaren erabakiak egiazko, den-denak **bidezko**. ∞.
- ∞. Zure morroi honek haietan du **argia**,
haiiek gordetzean sari **handia**.
Nork ezagutu bere hutse**giteak**?
Garbi nazazu ezkutuko erru**etatik**. ∞.
- ∞. Gorde nazazu orobat harro**keriatik**,
ez dakidala nag**usitu**;
horrela, akats gabe **izango** naiz,
bekatu larr**itik** libre. ∞.

Bigarren irakurgaia (St 5, 1-6)

Santiago Apostoluaren gutunetik

Entzun orain, zuek, aberatsok! Egizue negar eta aiene, gainera datozkizuen zoritxarreatik. Ustelak jota daude zuen aberastasunak, eta sitsak janda zuen jantziak. Herdoilak jota daude zuen erre-zilarrak, eta herdoil hori izango duzue testigu zeuen kontra, eta suak bezala jango du zuen haragia. Auzi aurreko azkenak diren egun hauetan pilatu duzue aberastasu.

Zuen soroetan uzta bildu zuten langileei ordaindu ez zenieten soldata deiadarka ari da, eta igitarien deiadarra Jaun ahalguztidunaren belarrietara iritsi da. Bapo bizi izan zarete zuek hemen lurrian eta atseginetara emanak; horrela, abereak bezala gizendu zarete hilketa-egunerako. Errugabea kondenatu duzue eta hil, eta inork ezin izan dizue aurre egin.

Aleluia (Ik. *Jn* 17, 17b. a)



∞. Zure hitza da egia, Jauna,,
sagara gaitzazu egia**re**n bidez. ∞.

Ebanjelioa (*Mk* 9, 38-43. 45. 47-48)

Homiliarako argibideak

Adiskideak dira, eta ez etsaiak

Bera bezala, Jainkoaren erreinuaren zerbitzuan, jendearen bizitza gizatarago, duinago eta zoriontsuago eginez, bizi daitezten, asko saiatu da Jesus; halere, ikasleak ez dira iritsi Jesusi zein Espirituk eragiten dion ikustera; ez dira iritsi konturatzeraz premiarik handiena dutenentzat Jesusek duen maitasunaz eta haren bizitza gidatzen duen norabide sakonaz.

Markosen kontakizuna oso argitzailea da. Oso gogaikarri gertatu zaien gertakizun baten berri eman diote ikasleek Jesusi. Ezezagun bat ikusi dute «*deabruak botatzen*». Eta «*Jesusen izenean*» dihardu, eta Jesusen hari berean: modu gizatarrean eta bakean bizitzea eragozten

dion gaitzetik jendea liberatzen ari da. Baina ikasleek ez dute gustukoa haren eginkizun liberatzaile hori. Ez zaie axola gizon hark sendatzen duen jendearen poza. Uste dute ezen jokabide hori eltze askotan burruntzalia sartu nahi izatea dela, eta errotik atera beharrekoa.

Jesusi agertu diote beren erreakzioa: «*Eragotzi egin nahi izan diogu, zeren ez baita gutakoa*». Arrotz hari ez zaio zilegi sendatzen jarraitzea, ez baita gure taldekoa. Bost axola zaie ikasleei jendearen osasuna, baizik taldearen izena dute gogoan. Monopolizatu egin nahi dute Jesusen egintza salbatzailea: inork ez du sendatu behar haren izenean, baldin eta taldeari atxikitzen ez bazaio.

Jesusek, ordea, gaitzetsi egin du ikasleen jarrera eta beste jarrera guztiz desberdin bati lotu zaio. Beste era batean dakusa Jesusek arazoa. Lehenengo gauza eta garrantzizkoena ez da talde txikia hazten joatea, baizik Jainkoaren salbazioa gizaki ororengana iristea, nahiz taldekide ez den jendearen bitartez izan: «*gure aurka ez dena, gure alde ari da*». Jesusen indar sendatzailea eta askatzailea munduan presente egiten ari den oro Jesusen taldearen alde ari da.

Jesusek uko egin dio ikasleen jarrera sektario eta baztertzailari, beren izena eta handitzea soilik baitituzte gogoan, eta jarrera irekia eta barne-hartzailea hartu du, zeinen arabera lehenengo gauza gizakia askatzea baita, suntsitzaile eta zorionaren kontrako den orotatik askatzea. Horrek izan behar du beti Jesusen zinezko jarraitzaile guztiei eragin behar dien Espiritua.

Eliza katolikotik kanpo, kontaezin ahalako gizon-emakumeen multzoa ari da on egiten eta lanean, gizartea duinago egiteko, zuzenago eta askeago egiteko. Halakoengan bizirik da Jesusen Espiritua. Adiskidetzat eta aliatutzat hartu behar ditugu halakoak, eta ez etsaitzat, inoiz ere. Ez dihardute gure aurka, zeren gizakiaren alde ari baitira, Jesus bezala.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: egin dezagun otoitz gizaki guztien alde eta beraien beharren alde, inori falta ez dakion gure bihotz onaren laguntza:

- Elizaren alde, bere ondasunak asmo pastoral eta sozialen zerbitzuan erabil ditzala, eska diezaiogun Jaunari.
- Ekonomilariak beren plangintzak egitekoan gogoan izan dezatela beti, pertsonaren osotasunaren garapena izan behar dutela helburu, eska diezaiogun Jaunari.
- Gure gizartearen oparotasun eta leunkeriako giroan bizi diren aberatsak kontura daitezela, badirela beren banketeetako ate ondoan horien apurren zain dauden Lazaro pobreak, eska diezaiogun Jaunari.
- Gure bihotza ez dadila gogortu, baizik eta Jainkoak munduko pobreen bidez egiten digun deia entzun dezagula, eska diezaiogun Jaunari.

Gure Jainkoa, behartsua bere izenez deitu eta aberatsa berriz ezezagun gertatzen zaizuna; entzun gure otoitzak, agertu Zure justizia zapalduki eta emaguzu, Zure hitza entzutean sinets dezagula, hilen artetik berpiztutako Kristo Jaunak gu ere onartuko gaituela gure bizitza bukatzean Abraham gure aitaren altzoan. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Jainko errukitsua, onar itzazu gure dohain hauek, eta zeure Elizaren eskaintza honetatik sor ezazu guretzat bedeinkazio guztien iturria. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Betiko biziaren sakramentu honek
berri ditzala, Jauna, gure gorputz-arimak,
zure Semearen heriotza aldarrikatuz
berarekin bat egiten dugunok,
haren piztueran ere parte izan dezagun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Urriaren 6an
URTEAN ZEHARREKO XXVII. IGANDEA

Agurra

Jaun errukitsuaren bakea zuekin.

Sarrerako oharpena

Elizaren Senarra da Jauna eta Eukaristia bakoitzean egiten gaitu bere biziaren ogiaren partaide. Familia baten kide gara, Jainkoa goastera elkartzen den familia baten kide: gure harremanetan leialtasun, esker on, barkamen eta, batez ere, barkamen jarrera izateko deia eta dohaina jasotzen dugu gaur ere.

Damu-otoitza

Jesus Jaunak hitzaren eta Eukaristiaren mahaira dei egiten digu eta, horretarako, bihotz-berri gaitezela eskatzen. Aitor ditzagun, beraz, geure bekatuak eta eska dezagun uste osoz Jainkoaren errukia.

—Jesus Jauna, Aitagana gara**ra**matzan bidea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, herri guztiak argitzen **di**tuen egia: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, mundua eraberr**it**zen duen bizia: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa, ontasun guztien iturria, guk merezi eta uste baino neurri handiagoan betetzen dituzu gure eskariak;
isur ezazu gugana zeure errukia,
askatu gure bihotza beldur guztitik
eta eman eskatzera ere ausartzen ez garena.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,

Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren salbamen-asmoan maitasunerako sortuak izan gara gizakiok. Joera sakon eta beharrezko hau, ez da bizitzako lokarri hutsa, Jainkoak egiaz maite gaituenaren ezaugarri bizi, baizik.

Lehenengo irakurgaia (*Has 2, 18-24*)

Hasiera liburutik

Jainko Jaunak esan zuen: «Ez da on gizona bakarrik egotea; eman diezaiodan berari dagokion laguntza».

Jainko Jaunak landako abere eta zeruko hegazti guztiak moldatu zituen lurretik eta gizonari eraman zizkion, zein izen ematen zien ikusteko; honela, bada, bizidun orok gizonak ezarritako izena darama. Beraz, gizonak izena ezarri zien abere guztiei, zeruko hegazti guztiei eta piztia guztiei; baina ez zuen aurkitu berari zegokion laguntzarik.

Orduan, Jainko Jaunak lozorroan murgilarazi zuen gizona. Loak hartu zuenean, saihets-hezur bat kendu zion eta hutsunea haragiz bete. Gizonari kendutako saihets-hezurraz emakumea moldatu zuen Jainko Jaunak, eta gizonari eraman zion. Honek esan zuen: «Hau bai dela ene hezurretik datorren hezur, ene haragitik datorren haragi. Emakume izango da deitua, gizakumeagandik izan baita hartua».

Horregatik, gizasemeak bere aita-amak utziko ditu eta emaztearekin elkartuko da, eta biak haragi bat izango dira.

Erantzun-salmoa (*Sal* 128 [127], 1-2. 3. 4-5. 6)

A-ger - tu zu - re bi- hotz o - na. E-man, Zuk, Jau -
na, o - sa - su - na.

- ∞. Zorionekoa Jaunari begirune **diona**
eta haren bideetan **dabilena**!
Zeure lanaren fruitutik duzu jango,
zoriontsu izango zara eta ongi zaizu joango. ℞.
- ∞. Emaztea mahatsondo emankorraren **antzeko**
zure **etxe** barnean;
seme-alabak olibondo-kimuen **antzeko**
zure mahai **inguruan**. ℞.
- ∞. Hara nola izango den bedeinkatua ‘
Jaunari begirune **diona**!
Bedeinka zaitzala Jaun**ak** Siondik,
goza zaitezela Jerusalemen zorionaz ‘
zeure bizitzako egun guz**tietan**.
Ikus ditzazula zeure hurren haurrak! Bakea Isra**aeli**! ℞.

Bigarren irakurgaia (*Heb* 2, 9-11)

Hebrearrei egindako gutunetik

Senideok: Aingeruen pareko egina izan den Jesus hura aintzaz eta ohorez koroatua ikusten dugu, jasan zuen heriotzagatik; zeren, Jainkoaren onginahiaz, guztien onerako jasan baitzuen heriotza.

Jainkoak, gauza guztien sorburu eta helburu denak, seme-alaba asko aintzara eraman nahi zuen. Egoki zen, beraz, haiek salbamenera gidatuko zituen burua, Jesus, oinazeen bidez bete-beteko egitea. Izan ere, bai santu egiten duen Jesusek, bai honek santu egiten dituenek, jatorri bera dute denek. Horregatik, Jainkoaren Semeari ez dio lotsarik ematen hauei senide deitzeak.

Aleluia (1 Jn 4, 12b)

A - le - lu - ia, a le - lu - ia, a - le - lu - ia.

℣. Elkar maite **ba**dugu,
Jainkoa **gugan** dago,
eta haren maitasuna bere betera iritsi da **gugan**. ℟.

Ebanjelioa (Mk 10, 2-16)

Homiliarako argibideak

Txikiak onartu

Pasadizo honek gauza ezdeusa ematen du. Halere, inportantzia handiko hondoa du Jesusen jarraitzaileentzat. Markosen kontakizunaren arabera, zenbait jendeek Jesusengana eraman nahi ditu han inguruan jolasean ari diren haur batzuk. Jende horrek nahi

duen gauza bakarra Jesusek uki ditzan da, bere indarrez eta bere biziapapur bat kutsa ditzan. Itxuraz, uste herrikoia zen hori.

Ikasleei gogaikarri gertatu zaie, eta saihestu egin nahi dituzte haurrak. Hesia eratu nahi dute Jesusen inguruan. Beren buruari egotzi nahi diote Jesusengana zein iritsi eta zein ez erabakitzeke ahala. Jesusen eta txikienen, ahulenen eta gizartean premiarik handiena dutenen artean jarri dira berak. Jesusengana iristea erraztu ordez, zaildu egin dute.

Ahaztu egin dira jada Jesusen keinuaz, egun batzuk lehenago taldearen erdian Jesusek haur bat jarri izanaz, ikas dezaten ezen txikienek izan behar dutela ikasleen arduraren eta arretaren erdigune. Ahaztu egin dira guztien aurrean haurra besarkatu duela, gonbidatu dituelarik bere izenean eta bere txera beraz halakoak onar ditzaten.

Hori ikusirik, haserretu egin da Jesus. Ikasleen portaera hori jasanezina du. Eta, haserre, bi agindu hauek eman dizkie: «*Utzi hurrei nigana hurbiltzen. Ez eragotzi*». Zeinek irakatsi die, ordea, Jesusen Espirituaren hain kontrakoa den era horretan jokatzeko? Hain juxtu, txikiak, makalak eta babesgabeak dira Jesusengana hurbiltzeko aukera izan behar duten lehenengoak.

Oso sakona da arrazoia; Aitaren asmoari dagokiona izaki: «*Horiek bezalako direnena da Jainkoaren Erreinua*». Jainkoaren erreinuan eta Jesusen taldean, txikiak ez, baizik handiak eta boteretsuak dira gogaikarri, hau da, dominatzaile eta lehenengo izan nahi dutenak.

Elkartearen erdigunea ez du bete behar jende indartsu eta boteretsuak, gainerakoei goitik behera begiratzen dienak. Aitzitik, Jesusen elkartean honelako jendea behar da: azken postuaren bila dabilena, ahulena eta premia handienekoak onartzeko, zerbitzatzeko, besarkatzeko eta bedeinkatzeko.

Hain zuzen, Jainkoaren erreinua ezin zabaldu da handien gogoak ezartzen duenaz, baizik txikiak onartuz eta defendatuz. Azken hauek arduraren eta arretaren erdigune direnean, hor ari da garatzen Jainkoaren erreinua, Aitak gogoko duen gizartea, alegia.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: Espirituak gudan sortzen duen seme-alabatzako konfiantzaz beterik, zuzen diezazkiogun gure eskariak Jaunari:

- Elizaren alde: fededun guztien testigantza biziarekin, ager diezaiela gizaki guztiei Jainkoaren salbamena. Eska diezaiogun Jaunari.
- Herri agintarien alde: izan dezatela argitasuna gizaki guztien arteko bakea, ongizatea eta erlijio-askatasuna bermatzeko. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gerra eta ezina nozitzen duten herrien alde: indarkeria, suntsiketa eta mina alde batera utzi eta bizikidetzaren alde joka dezaten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Hemen bilduak gaudenon alde: Jainkoak argi ditzan gure bihotzeko begiak, jaso dugun deiaren handitasuna ikusteko. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, Zuk sortu dituzu gizakiak, maitasunean bat izan daitezen; emaguzu hasierako maitasuna, batasunaren eta leialtasunaren dohainez elkar maite dezagun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, zure nahia betez egiten dizugun sakrifizioa, eta, Zu goresteko ospatzen dugun Eukaristia honen bidez, eramazu gudan bere betera zure salbamenak dakarren santutasuna. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Jainko ahalguztiduna, sakramentu honetan parte hartzeak ase dezala Zurekiko dugun gose-egarria eta eralda gaitzala hartu dugun horretan. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Urriaren 13an
URTEAN ZEHARREKO XXVIII. IGANDEA

Agurra

Jauna zuekin.

Sarrerako oharpena

Jainkoa beti mintzo zaigu zuhertasun eta jakinduriaz. Hitz hori entzuteak Kristori jarraitzen laguntzen digu, askatasunez eta eskuzabaltasun osoz, loturarik gabe eta Jainkoaganako uste onez. Eukaristiaren alderdi bikainak dira hauek ere.

Damu-otoitza

Kristok bekatuaren eta heriotzaren gain lortu duen garaipena ospatzen dugu igandean. Aitor dezagun zeruetako Aitaren errukiaren beharrean garela, bekatuak hilik bizi berrira piztu gaitezen.

—Jesus Jauna, egiaren eta graziaren **bet**ea zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gu aberasteko zeure burua behar**tsu** egin duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gurekin zeure herri santua egitera **et**orri zarena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Jauna, izan dezagula beti zure grazia,
bai aldez aurretik, bai bidelagun;
Zuk eutsirik, on egiteko prest egon gaitezen beti.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jakinduria dohain handia da. Jakinduria beharrezkoa da bizitzan asmatzeko, bide egokia aukeratzeko... Jainkoaren Hitzak argi egiten digu bide horretan.

Lehenengo irakurgaia (*Jkd 7, 7-11*)

Jakinduria liburutik

Otoitz egin nuen, eta zuhurtzia eman zidan Jainkoak, dei egin nion, eta jakinduriaren espiritua iritsi zitzaidan; errege-aulkia eta agintemakila baino nahiago izan nuen; haren aldean aberastasuna ezereztat jo nuen; harribitxirik preziatuenarekin ere ez nuen parekatu, urre guztia, haren aldean, hondar-apur bat besterik ez, eta zilarrak, haren aurrean, lokatza dirudi.

Osasuna eta edertasuna baino maiteago izan nuen eta neure argitzat aukeratu, haren distira ez baita inoiz itzaltzen.

Eta jakinduriarekin ondasun guztiak batera etorri zitzaizkidan, eta ezin konta ahala aberastasun haren eskutik.

Erantzun-salmoa (*Sal 90 [89], 12-13. 14-15. 16-17*)

E-rru - ki hu - tsa du - gu Jau - na, e - rru - ki - a

ta mai - ta - su - na.



- ∞. Irakatsiezaguzu geure egunen kontua **eram**aten,
zuhurtasunaren muinaz jabetu **gaite**zen.
Itzul zakizkigu, Jauna! **Noiz** arte?
Erruki zaitez zeure zerbitzari**ez**. R̃.
- ∞. Ase gaitzazu goizero zeure maitasunaz,
poztu gaitezen eta zoriontsu izan geure egun guztietan.
Eman zoriona orain arteko atsekabe-egun**en** ordez,
ikusi ditugun urte gorrien **ordez**. R̃.
- ∞. Ikus bezate zure zerbitzari**ek** zure egintza, ‘
eta haien seme-alabek zure **dir**daia.
Betor gugana Jaunaren, gure Jainkoaren, gozot**as**una
eta sendo beza hark gure esku**en** lana;
sendo dezala, bai, gure **lana**. R̃.

Bigarren irakurgaia (Heb 4, 12-13)

Hebrearrei egindako gutunetik

Bizia da Jainkoaren hitza, bizia eta eraginkorra, aho biko ezpata baino sarkorragoa; arimaren eta espirituaren sakoneraino sartzen da, pertsonaren zokorik ezkutueneraino, eta barneko pentsamenduak eta asmoak aztertzen ditu. Ez da harentzat munduan ezer ikusezinik; dena dago biluzik eta agerian, kontuak eman beharko dizkiogun haren begien aurrean.

Aleluia (Mt 5, 3)





∇. Zorionekoak gogoz behartsu direnak,
berena baitute Jainkoaren erreinua. ∇.

Ebanjelioa (Mk 10, 17-30 edota laburrago Mk 10, 17-27)

Homiliarako argibideak

Gauza bat dugu falta

Pasadizoari aparteko bizitasuna eman dio kontalariak. Jerusalemerako bidea hartu du Jesusek, baina leku hartatik urundu baino lehen, ezezagun bat iritsi zaio «*korrika*» eta «*belauniko jarri aurrean*», bertan eusteko. Jesusen premia gorria du.

Ez da sendatu beharra duen gaixo bat. Maisuagandik argia lortu nahi du bere bizitza norabidetzeko. «*Zer egin behar dut betiko bizia ondare izateko?*» Ez da arazo teoriko hutsa, baizik existentziala. Ez da mintzo maila orokorrean; berak zer egin behar duen jakin nahi du.

Beste ezer baino lehen, Jesusek hau gogorarazi dio: «*ez da inor on Jainkoa baizik*». Zer «*egin*» planteatu aurretik, beste inor ez bezalako Jainko On baten aurrean bizi garela izan behar dugu gogoan: haren ontasun ezin ulertuan estekatu behar dugu geure bizitza. Ondoren, Jainko On horren «*aginduak*» gogorarazi dizkio Jesusek. Bibli tradizioaren arabera, horixe da betiko bizirako bidea.

Miresgarria da gizon haren erantzuna. Txikitandik bete du hori guztia, baina amets handiago bat sumatu du bere baitan. Beste zerbaiten bila dabil. «*Jesus begira-begira jarri zaio samurkiro*». Begiratu horrek, besterik gabe, gizon harekin izan nahi duen harreman pertsonala adierazten du.

Ondo ulertu du Jesusek haren ezin ase: «*gauza bat duzu falta*». Betiko bizia «*lortzeko*» agindua «*betetzearen*» logika horri jarraituz, bekaturik gabe bizi bada ere, ez da geldituko guztiz ase. Gizakiaren barnean bada irrika sakonago bat.

Horregatik, bere bizitza beste logika baten arabera norabidetzero gonbidatu du Jesusek. Lehenengo gauza, bere ondasunei atxikirik ez bizitzea da («*saldu daukazuna*»). Bigarrena, pobreei laguntzera gonbidatu du («*eman haiei zeure dirua*»). Azkenik, «*zatoz eta jarraitu niri*». Biek elkarrekin egin ahal izango dute bidea Jainkoaren erreinurantz (!).

Gizonak, ordea, altxatu eta alde egin du Jesusengandik. Ahaztu egin du Jesusen begiratuaren xarma, eta triste joan da. Badaki ezin gozatu izango duela inoiz ere Jesusi jarraitzen diotenen poza eta askatasuna. Markosek argitu digu, ezen «*oso aberatsa zela*».

Jainkoaren herriaren otoitza

Jaunarenganako uste onez beterik egigun otoitz:

- Kristau izateagatik sufritzen dutenek izan dezatela Ebanjelioarekin leial izatearen pozak ematen duen barne-bakea. Eska diezaiogun Jaunari.
- Nazioetako arduradunek izan dezatela egiazaletasuna eta justizia, denon ondasunak zaindu eta banatzerakoan. Eska diezaiogun Jaunari.
- Lurra landuz bizi direnek izan dezatela bere lanaren fruituak egoki jaso eta banatzeko bidea. Eska diezaiogun Jaunari.
- Igandea ospatzera biltzen garenok izan dezagula geroaren gogoz, oraina Jainkoarekin bat eginda bizitzeko grazia. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, ezagutzen dituzu gure bihotzeko asmoak; entzun gure otoitzak eta bete gure bihotzak Zure hitzaren ederrez, Zure jakinduriak argiturik lurreko gauzak maita ditzagun zerukoak iristeko eran. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, zeure fededunen eskariak eta eskaintzak; egizu, fedez eta maitasunez ospatzen dugun Eukaristia honek eraman gaitzala zeruko zorionera. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Gutziz ahaltso zarenez, Jauna, apalik eskatzen dizugu, zure Semearen Gorputz eta Odol santuez janaritu gaituzunok parte izan dezagula jainkozko zure izatean. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Urriaren 20an
URTEAN ZEHARREKO XXIX. IGANDEA
DOMUND

Agurra

Gure bihotza Jainkoa maitatzera zuzentzen duen Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Kristoren gurutzeko eskaintza gertaberritzen dugu Eukaristian. Horrexegatik, Jesusi jarraitzeak Berak egindako bide bera egitea esan nahi du: maitasun-, apaltasun-, eta Jainkoaren nahiarekiko obedientzia-bidea, baita norbere bizitza eskaintzeraino ere. «Zoazte eta deitu guztiak festa-otordura!» dio aurtengo Domund misio igandearen goiburuak, gizaki orok bizitza duina eta betea izateko duen eskubidea denoi gogoratuz.

Damu-otoitza

Eukaristi ospakizun honen hasieran, eska diezaiogun Jainkoari bihotz-berritzearen grazia; horrela baketzea lortuko dugu eta elkartuago egongo gara Jainkoarekin eta geure senideekin.

—Jesus Jauna, gu kondenatzera ez, baizik salbatzera **etorri** zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bihotz-berritzen den bekatari bakar batengatik, zeruan poz handia izango dela **esan** zenuena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, asko maite izan duenari asko **barkatu**en diozuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 egizu, gure gogoia Zuri emana egon dadila beti,
 Zu, Jaun handi hori,
 bihotz leialez eta garbiz zerbitza zaitzagun.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpema

Boterea, dirua, aberastasuna... modan dauden gauzak dira, noski. Jainkoaren Hitzak egiten digun gonbitea, ordea, zeharo desberdina da: zerbitzua, eskuzabaltasuna eta elkarren harremana dira Jesusen jarraitzailearen benetako jarrerak.

Lehenengo irakurgaia (*Is* 53, 10-11)

Isaias profetaren liburutik

Jaunak oinazez josi nahi izan zuen. Bekatuen ordainetan bizia eman zuelarik, izango ditu ondorengoak eta bizitza luzea, eta haren bitartez Jaunaren nahia burutuko da. Hainbat neke jasan ondoren, argia ikusiko du eta asean izango da. Ikasi duenaren bidez, nire zerbitzari zuzenak asko egingo ditu zuzen, haien gaiztakeriak bere gain hartu baitzituen.

Erantzun-salmoa (*Sal* 33 [32], 4-5. 18-19. 20 eta 22)

Gu - re ar - te - ra be - tor, Jau - na, zu - re be - ti -
 ko bi - hotz o - na.



- ✠. Zuzena da Jaunaren hitza,
 fidagarria hark egin duen **guztia**.
 Justizia eta zuzenbidea **du** maite,
 Jaunaren maitasunaz dago **lurra** betea. ✠.
- ✠. Jauna arduratzen da begirune **diotenez**,
 haren maitasunean itxaroten **dutenez**,
 haiek heriotzatik **libratzeko**
 eta gosetean bizirik **gordetzeko**. ✠.
- ✠. Guk Jaunagan dugu **esperantza**,
 bera dugu laguntzaile eta **babesle**.
 Betor gurekin, Jauna, zure **maitasuna**,
 Zugan baitugu jarria **itxaropena**. ✠.

Bigarren irakurgaia (Heb 4, 14-16)

Hebrearrei egindako gutunetik

Senideok: Gure apaiz nagusi handia, Jesus, Jainkoaren Semea, zeruetan sartua dugunez gero, euts diezaiogun aitortzen dugun sinesmenari; izan ere, gure apaiz nagusia ez da gure ahuleriaz erruki ez daitekeen norbait, hura ere, gu bezala, gauza guztietan probatua izan baita, bekatuan izan ezik. Hurbil gaitezen, bada, konfiantza osoz Jainkoaren graziaren tronura, errukia iritsi eta premialdian laguntza izan dezagun.

Aleluia (Mk 10, 45)



gaur egun ere. Zer hori baino okerragorik, Jesusen eta jendearen askatasunaren zerbitzari izateko hark dakarren egitasmoaren kontra?

Hain larria da gertatua, non Jesusek «*bildu egin baititu*» garbi uzteko zer jarrera izan behar duten bere jarraitzaileek beti. Ondo baino hobeto dakite nola jokatzen duten erromatarrek, «*herrietako buruzagiek*» eta lurreko «*handikiek*»: jendearen tirano izan ohi dira, menderatzaile eta beren boterea sentiarazi behar izaten dute. Hona bada: «*zuen artean horrelakorik ez*».

Jesusen jarraitzaileen artean dena bestelako izan behar du: «*handi izan nahi duena izan bedi zerbitzari, eta lehenengo izan nahi duena izan bedi guztien esklabo*». Handitasuna ez da neurtzen duzun boterearen arabera, gizartean duzun mailaren arabera, erakusteko dituzun tituluen arabera. Jesusen Elizan horrelako gauzen bila dabilena ez da handiago bihurtzen, baizik ezdeusago eta barregarriago. Izatez, oztopo da hori guztia Gurutziltzatuak nahi izan duen biziera sustatu nahi denean. Halakoari oinarrizko ezaugarri bat falta zaio Jesusen jarraitzaile izateko.

Elizan guztiok behar dugu izan zerbitzari. Kristau-elkartean kokatu behar dugu geure burua, ez goitik beherantz, nagusitasunetik, boteretik edo probetxuzko protagonismotik begira, baizik behetik, prestasunetik, zerbitzutik eta besteei nola lagunduko bilatzetik begira. Jesus dugu geure eredu. Hura ez zen bizi sekula «*zerbitzatu izateko, baizik zerbitzari izateko*». Horixe da hura zer izan zen hobekienik eta miresgarrienik adierazten duen laburpena: zerbitzari izan.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: egiogun otoitz gizaki guztien ona nahi duen Jainkoari:

- Jaunak fededunen bihotzak sutu ditzan, Berri ona zabalduz gizaki guztien salbamena eta poza bilatzeko. Eska diezaiogun Jaunari.
- Herriak eta arrazak zatitzen dituzten oztopoak gaindituz, gizadi osoa berdintasun eta justiziaz bizitzen saia dadin. Eska diezaiogun Jaunari.
- Etorkinak eta iheslariak, gizarteak bazterten dituenak eta abandonatuak diren guztiak senti daitezen Jaunak babestuak eta guztiok onartuak. Eska diezaiogun Jaunari.
- Jainkoak bere maitasunean sendo gaitzan, elkarren zerbitzari leialagoak izanik Kristoren antz handiagoa izan dezagun. Eska diezaiogun Jaunari.

Zure Semearengan eman diguzu, Jauna, behin betiko eskaintza egin duen Apaiz Nagusi bakarra; entzun gure otoitzak eta egizu beti Zure nahia egiten saia gaitzela, Haren eskaintzan parte harturik betiereko mahaira iritsi gaitezen. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Oparigaiak dakartzagu aldarera, Jesus Eukaristian presente egin dadin. Geure eskuzabaltasuna ere orain agertuko dugu, diru-bilketa egitean gaur DOMUND dela gogoratu.

Oparigaien gainekoa

Dohain hauek bihotz zabalez eskantzean, Jauna, egizu, garbi egiten gaituen zure grzia lagun ospatzen ari garen sakramentuak bihotz-berri gaitzala.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Jauna, eukaristi ospakizun honek
zeruko bizia gozarazi digu aldez aurretik;
izan dezagula beraren laguntza
lur honetan zure ondasunak gozatzeko,
baita argia ere betikoak maitatzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Urriaren 27an
URTEAN ZEHARREKO XXX. IGANDEA

Agurra

Jainko Aitagandik eta Jesu Kristo Jaunagandik bakea, maitasuna eta sinesmena zuekin.

Sarrerako oharpena

Bataiatuon batzarrera bildu gara. Bataioko uretara ekarriak eta fedez argituak izan ginenok Jesus Jauna aitortzen dugu gure bizitzaren askatzaile eta poz. Hau da argi bila dabiltzaneren batzarra, hau, ikusi nahi dutenen mahaia.

Damu-otoitza

Hurbil gaitezen Jainko zuzenagana, apalik eta bihotz-damuturik, eta, geure burua bekatari aitortuz, eska diezaigun errukia Jainkoari

—Jesus Jauna, galdurik zegoena bilatzera **e**torri zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, guztion erospenerako zeure bizia **e**man duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, zeure seme-alaba sakabanatuak **b**iltzen dituzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
sendotu gugan sinesmena, esperantza eta maitasuna;
eta egizu, hitzematzen diguzuna lortu ahal izateko,
maita ditzagula Zuk aginduak.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Itsu izateko modu asko dira... eta asko ikasiak dauzkagu nonbait!
Jainkoaren Hitzak argitzen gaitu, argi-bideak urratzen ikasteko.

Lehenengo irakurgaia (*Jr 31, 7-9*)

Jeremias profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna: «Egin oihiu pozaren pozez Jakoben herriगतिक, egin irrintzi herrien buru denगतिक. Egin oihiu, goretsi Jauna, esanez: “Salbatu du Jaunak bere herria, Israelen bizirik geldituak”.

Begira, iparraldetik ekarriko ditut, lurreko azken mugetatik bilduko. Jendetza izugarria itzuliko da: horien artean itsuak eta herrenak, haurdunak eta haurra izan berriak batean. Negar eta otoitz artean ekarriko ditut. Ongi ureztaturiko ibarretan zehar eramango ditut, estropezurik egingo ez duten bide zelaian barna, Aita izango naiz Israelentzat, nire lehen-seme izango da bera».

Erantzun-salmoa (*Sal 126 [125], 1-2b. 2c-3. 4-5. 6*)

As - ko la - gun - du di - gu - zu, Jau - na. Hau -
xen da po - za guk dau - ka - gu - na!

- ✠. Jaunak Sionen zoria aldatu zuenean,
ametsetan bezala geunden.
Barrez bete zitzaigun orduan ahoa,
poz-oihuz mingaina. ✠.
- ✠. Jentil-herrietan ere esan zuten:
«Handikiro jokatu du Jaunak haien alde».
Handikiro jokatu du Jaunak gure alde,
eta pozarren gaude! ✠.
- ✠. Aldatu, Jauna, gure zoria,
euri-jasek basamortua bezala.
Malkoz erein zutenek
pozez biltzen dute. ✠.
- ✠. Negarrez joan ziren,
hazi-zorroa eramanez;
poz-oihuka datoz,
gari-balak ekarriz. ✠.

Bigarren irakurgaia (*Heb 5, 1-6*)

Hebrearrei egindako gutunetik

Apaiz nagusia gizonen artetik hartua eta Jainkoaren aurrean gizon-
-emakumeen ordezkari izateko jarria izaten da, bekatuengatik
emaitzak eta opariak eskaintzeko.

Badaki ezjakinez eta okerbideratuez gupidatzen, bera ere giza
ahuleriaz inguratua dagoenez gero. Horregatik, bere bekatuengatik
ere opariak eskaini behar ditu, herriaren bekatuengatik bezala. Eta
ezin du inork apaiz nagusigoaren ohorea beretzat hartu, Jainkoak
deiturik ez bada, Aaron bezala.

egiten ari den bidearen «ertzean», hura hartu ezinik geure kristau-elkarteen gidaritzat.

Zer egin genezake? Bere itsu-izaera eta guzti, Bartimeok «*jakin du*» ezen bere ingurunean dabilela Jesus. Ezin utzi du galtzen bere aukera, eta hoska ekin dio, behin eta berriz: «*erruki nitaz*». Horixe da beti lehenengo gauza: bihotza irekitzea edozein deiri edo esperientziari, geure bizitza sendatzera gonbidatzen gaituenean.

Itsuak ez daki bestek egindako otoitzak errepikatzen. Dei-hotsa bakarrik atera zaio, erruki-eskea soilik, bere burua gaizki ikusten duelako. Dei-hots apal eta egiati hori, bihotz-barnetik atera den hori, bizitza on baten hasiera gerta dakiguke. Jesus ez da igaroko gure ondotik kasurik egin gabe.

Itsuak lurrean jarraitzen du, Jesusengandik urrun, baina adi-adi entzun du bidalitakoek esan diotena: «*Aupa! Jaiki! Deika duzu!*» Lehenik, bihotza ireki du, esperantzari zirrikitu txiki bat eskainiz. Ondoren, deia entzun du, jaiki eta erreakziona dezan. Azkenik, ez dago bakarrik: deika sumatu du Jesus. Guztiz aldarazi du horrek itsua.

Orduan, hiru urrats egin ditu Bartimeok, bere bizia aldatuko dutenak. «*Gain-jantzia bota du*», oztopo du Jesusengana joateko. Gero, artean itsumustuka bada ere, «*jausi bat egin du*», ausart. Horrela, Jesusengana «*hurbildu da*». Horra zer behar genukeen gutako askok ere: geure fedea itotzen ari diren lotura askotarik geure burua askatu; behingoz erabakia hartu, gerorako utzi gabe, eta Jesusen aurrean jarri, konfiantza xumez eta berriz.

Jesusek galdetu dionean zer nahi duen, itsuak ez du dudarik. Ederki asko daki zer behar duen: «*Irakasle, ikus dezadala*». Hori du gauzarik inportanteena. Norbait gauzak era berri batean ikusten hasten denean, eraldatu egiten da halakoaren bizitza. Elkarte bat, Jesusen argia ikusten duenean, bihotz-berritu egiten da.

Jainkoaren herriaren otoitza

Jaunari egindako otoitzak Berak bihotz onez entzuten dituela jakinik, egigun otoitz apaltasunez:

- Jaunak indarra eta argitasuna eman diezaien Fernando gure gotzainari eta Elizako artzain guztiei. Eska diezaiogun Jaunari.
- Neurrigabeko ezberdintasunak gainditurik, herrietako arduradunak denon ongizatearen alde saia daitezten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Sufritzen duten guztiek kristau-elkartearen bidez presente egiten den Jaunaren indarra eta laguntza izan dezaten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Hemen bildu garenok eta gure etxeko eta adiskide guztiok, itxaropenez eta elkarri on eginez bizi gaitezen. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, itsuen argia eta nahigabetuen poza zarena, Zure Semearengan eman diguzu onginahiaren iturria; entzun Zure familia honen otoitzak eta egizu Kristorekin bat eginik zuganako bidea aurki dezagula. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gainekoa

Aita guztiz ona,
begira Zuri, Jaun handi horri, ekarri dizkizugun dohain hauei
eta egizu, gure zerbitzuaren
adierazpen den eskaintza hau irits dadila Zugana
eta gorets dezala zure izena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Jauna, gure fedearen sakramentu honek
egin dezala gugan berak adierazten duena,
orain irudiz egiten duguna
gero egiaz eta bete-betean har dezagun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez

